

‘Gipuzkoako Ahotsak’: 9 kontzertu lurraldeko musika-talentua sustatzeko

- **Ziklo berria urria eta abendua bitartean egingo da Kutxa Fundazioa Kluban, Bidean Produkzioak-en laguntzarekin.**
- **Taldeen hautaketa hainbat adierazletan oinarritu da, hala nola musikaren kalitatean, hizkuntzan edo genero berdintasunean.**

Donostia, 2024ko urriaren 1a. Kutxa Fundazioak ‘Gipuzkoako Ahotsak’ abiatu du, Gipuzkoako musika sorkuntzaren aniztasunari ahotsa emango dion musika zikloa. Ekimena urria eta abendua bitartean egingo da, eta 8 kontzertu bikoitz eta banakako 1 izango ditu, guztiak tokiko taldeenak. ‘Gipuzkoako Ahotsak’ lurraldeko talentu berri eta finkatua babesteko eta ikusarazteko plataforma gisa aurkezten da.

Ziklo honen helburua beren berezitasun eta sormenagatik egiteko, ulertzeko eta izateko modu berriak proposatzen dituzten ahotsei espazio bat eskaintzea da. Musikaren bidez, artista eta sortzaileek ezarritako arauak desafiitzen dituzte, eta urrunago begiratzeko inspirazioa ematen digute, gizarte irekiagoa, inklusiboagoa eta toleranteagoa sustatuz.

‘Gipuzkoako Ahotsak’ osatuko duten taldeen hautaketa proposamenen kalitatea eta aniztasuna bermatzen duten funtsezko adierazle batzuen arabera egin da. Adierazle horien artean dago musikaren kalitatea, hain zuzen ere proiektu bakoitzak maila artistiko altua duela bermatzeko. Gainera, artisten profesionaltasuna, iraunkortasuna eta ibilbidea, eta musikaren panoraman aktibo mantentzeko duten gaitasuna baloratu dira.

“Era berean, genero-berdintasuna funtsezko irizpidea izan da, ordezkari orekatua eta askotarikoa ziurtatuz, baita proposamenen originaltasuna eta estiloa ere”, adierazi du Ane Abaldek, zikloaren arduradunak. Beste faktore batzuk ere izan dituzte kontuan, hala nola taldeek jaso duten kritika eta aintzatespena, baita Gipuzkoan izan duten parte-hartzea ere, ingurunearekiko lotura eta garapen kulturalarekiko konpromisoa erakutsiz.

Bidai musikal bat Gipuzkoan barrena

‘Gipuzkoako Ahotsak’ ekimenerako hautatutako taldeek tokiko musikaren aniztasuna eta kalitatea irudikatzen dute, estilo eta proposamen berritzaile ugari eskainiz. Urrian, azaroan eta abenduan zehar, beren sormen eta talentuagatik nabarmentzen diren artista berri eta finkatuen emanaldiak izango dira zikloan.

Antuxuna eta **Gilda** izango dira lehenak urriaren 5ean, eta **Zahara Moreno** eta **Ayvee** hurrengoak urriaren 12an. **Eraulen** musika urriaren 19an taularatuko da, eta **Eneritz Furyak**-ek eta **Hatxek** urriaren 25ean emango duten kontzertu bikoitza hilabeteko nabarmenetako bat izango da. Hurrengo egunean, 26an, **Postal Kolekzionistak** eta **Aria** taldeen txanda izango da. Eta **Sara Mansilla** eta **Nuria Culla** urriaren azkeneko egunean 31n, arituko dira.

Azaroan, zikloak aurrera jarraituko du: **Mark Duti** eta **Letagin** arituko dira azaroaren 22an, eta, ondoren, **Peachy Joke** eta **Ander Zubillaga** azaroaren 30ean. Azkenik, zikloa abenduan itxiko da, **Ke Lepo** eta **Alai** taldeen kontzertuekin, hilaren 6an, Gipuzkoako musika aniztasunaren ibilbide honi amaiera emanez.

Kontzertu guztiak Kutxa Fundazioa Kluban izango dira 21:00etan.

‘Artebidea’ programaren baitako proiektua

Artebidea Kutxa Fundazioak talentu artistikoa sustatu eta babestea helburu duen programa bat da, artistek banakako eta taldeko ezagutzaren sortzaile gisa egiten duten lanari prestigioa emateko asmoa duena. Eta lan hori sozializatuz egiten du, pentsamendu kritikoa eta artearen begirada anitza eta zabalagoa garatzeko.

“*Artebidea* programaren baitan, bederatzi proiektu anitz aurki daitezke eta horietako bat da ‘Gipuzkoako Ahotsak’ zikloa. Guztien artean desberdintasunak nabariak badira ere, helburu amankomun bat partekatzen dute: arteek, humanitateek eta kulturak ezagutzaren eraikuntzan egiten duten ekarpenari balioa ematea”, azpimarratu du Abaldek.

Artebidea programa, konkretuki, 2024-2030 Plan Estrategiko berriaren baitako ‘Ezagutza biziz’ lan-lerroan txertatzen da. Ezagutzaren kultura sustatzea du helburu, jendea egungo erronka eta aukeretara hurbiltzeko, eta horrela gizartea eraldatzeko prozesuak bultzatu eta eraikitzeko.

Musika zikloaren inguruko informazio gehiago: www.kutxafundazioa.eus

